

UN SIGLO DE NACIONALISMO EN EUSKAL HERRIA

egin

ri. Muere en atentado Santi Brouard. Crisis en el PNV. La Asamblea Nacional del partido cesa a Garaikotzeia.

1985 Pacto de legislatura del PNV y el PSOE. Ardanza elegido lehendakari.

1986 Entregas policiales Francia-España. Escisión en el PNV y creación de Eusko Alkartasuna. Referéndum OTAN. El PNV y UPN propugnan el sí, HB, EA y otras



LA REUNIFICACION NACIONAL ES EXIGIDA A AMBOS LADOS DE LA MUGA.

fuerzas el no. Euskadi rechazará el ingreso con un 60% de los votos. Elecciones autonómicas. HB ofrece un pacto de reconstrucción nacional. Fundación de Euskal Batasuna en Iparralde.

1987 Política de dispersión cancelada para presos de ETA. El PNV pacta con el PSOE la gobernabilidad de Vascongadas. Ardanza y Urralburu, lehendakaris. Con-

memoración del 50 aniversario del bombardeo de Gernika. HB alcanza su mayor número de votos, 251.849, en las elecciones europeas. Redada policial en Iparralde contra refugiados. Pacto de Madrid contra el terrorismo, participan PNV y EE. Los presos políticos vascos suman 564. Crisis en HASI con expulsión y bajas de militantes. ETB-1 en euskera.

EL NACIONALISMO VASCO AYER Y HOY

LENGUA Y CULTURA. 21

JOSE LUIS ALVAREZ
ENPARANTZA «TXILLARDEGI»

OSO BELDUR NAIZ ARTIKULUSKA HAU ERREPIKAPEN HUTSA IZANGO OTE DEN. EUSKARA ETA NAZIO-ERAIKUNTZA GAIAREN INGUURUAN, DENA ESANA BAITAGO; ETA ZERTAN ALDATZERIK EZ BAITAGO.

Euskal nazio-mogimendua gaur zertan den, eta nolatan horretara den aztertze-ko, Euskal Herria joan den mendeetan non kokatu zen gogoratu behar da aurrenik. Eta Euskal Herria, oro har, eta batez ere arrotzuta ez zegoen eskualdeetan, karlista zen.

Gure herria, hitz batez, bere buruaz kontzientzia hartzen hasi zenean, ikusmolde dinastiko arrotz baten jopu zen: «Don Carlos sís» (edo «Don Carlos no»).

Elizaren eragin harrigarriaren menpeko zelarik, gure herri-mogimenduak intentsu kutsu gaitza zeukan; eta herri xeheak (bertsolariak lekuko) ontzat ematen zuen gure eskubideak Elizaren bitartez eta Elizaren zerbitzutan eskuratuko zirela; ala ez zirela eskuratuko.

Klase-interes izkutuak bilatzea, bidezkoa da. Noski! Baina hemen herri desberdin bat zegoela kontutan ez hartzea,

zentzugabekeria da. Europa guztian gertatu dira horrelako nazio-pizkundekak; eta herri honen borrokaren naziotasun-izariari ez ikusia egiteak, alienazio-ara garamatza, eta ez beste inora.

Jakina: naziotasunari muzin edo ezikusia egiten dioten ikusmolde guztiek, oso prentsa ona dute Madrilén.

Baina herri hau osoki alienatuta egon da mendetan barrena (ez baita batere harriztekoa). Parisen eta Madrilén askoz ere gogokoago dituzte azalpen dinastikoak, erlijioaren araberrako ikusmoldeak; are, oraintsu arte, hyper-klasismo sasi-marxisten aldetik gertakariak argitu nahia.

Nafarroa bera ere (eta ondoriozko «navarrismo» naziogabea gauza bertsua) euskal nazio-arazoa hizkuntzatik at planteatzeko modu bat besterik ez da izan.

Hemen oraindik ere, edo oraintsu arte bederen, euskalduntasuna eta Euskal Herriaren nazio-eskubideak defenditze-kotan, beste zerbeitatetik egin behar zen: «euskaldun, fededun»; «vasco, democrata»; «basque, révolutionnaire de gauche radicale»; eta abar luze bat.

Euskal Herria, izendapenak berak adierazten duenez, euskararen herria izanik ere; Euskal Herriaren berresku-

rapena zein nahi aldetatik onartu izan da aisago, bere kultura eta hizkuntzaren izaritik baino. Horri alienazio deritzo.

Hala ere, gure kasoa ez da batere barkarra. Estonian, «eesti» hitzak batere adierazten du Nazioa eta nazio-hizkuntza. Gauza bera Finlandian, «suomi» hitzak batere adierazten du nazio-hizkuntza eta suomitarren nazioa (Baita Estatua bera ere).

Hala ere, aski dugu Kataluña aldera bidaia bat egitea, eta han ere nazioaren ardatza hizkuntza dela itsu batek ere erreparatzen du nahi ta nahi-er.

Gure separatismoa (zergatik ez?) naziotasunaren defentsan dauka bere oinarria: berezi egin nahi dugu, dudarik gabe, geure eskubidea delako. Baina eskubide izateaz gain, beste biderik ez baitugu somatzen geure nazio-nortasuna, eta honen ardatzen geure nazio-hizkuntza, Espainiaren eta Frantziaren menpean bermatzeko biderik.

Gure independentzi-egarriak, beraz, kultur helburua du funski: nazio-hizkuntzaren berreskurapena ez da dena, noski. Baina geure nazio-hizkuntza galdurik, Euskadi Estatua sortzeko beharrik batere ez dugu ikusten.

Euskaltzaletasunak independentismo-

ra eramaten gaitu. Eta izuletera ere: independentismoak euskaltzaletasunera. Euskara da batera Euskal Herriaren ardatza eta abertzaleatasunarena.

Urte mordo bat joan zaigu hau garbi ikusteko. Gure gazte-denboran oso normala zen hau entzutea: «el euzkera es muy importante, pero no imprescindible. Vuestra mentalidad es una exageración guipuzcoana. Una Euzkadi sin euskera es perfectamente posible y deseable»...

Giro horretan hezi gara gu. Katalanak, suomitarrek eta esloveniarrak ez.

Gauzak aurrera joan dira gurean. Gero eta nabarmenagoa agertzen da aldaketa hau.

Baina oraindik ere badago zer eginik eta zer borrokatu alor horretan.

Orain gora datorren belaunaldiak ez du arazo handirik izango ideia hauek abertzaleen artean onar arazteko.

Lanak izango ditu, hori bai, ezagueraren eta erabilpenaren mailan, nazio eskatuen normaltasunera heltzeko. Horretan bai.

Baina nik neuk bederen zalantza izpirik ez dut egiten: Euskal Herria nazio askatua izango da aurki; eta nazio euskalduna ere bai.*

Ardatza ardatz



1992KO ABERRI EGUNA HENDAIA ETA HONDARRIBIAN.

Gure independentzi-egarriak kultur helburua du funski: nazio-hizkuntzaren berreskurapena ez da dena, noski. Baina gure nazio-hizkuntza galdurik, Euskadi Estatua sortzeko beharrik batere ez dugu ikusten.